

IRAGARKIA

“LAMIAKO GELTOKIAREN AURREKO PLAZAREN INGURUA BIRGAITZEA” IZENeko OBRAK KONTRATATU AHAL IZATEKO ESPEDIENTEAREN HASIERA

2010-06-08ko 228 zenbakiko Ebazpenaren bidez, “Lamiako geltokiaren aurreko plazaren ingurua birgaitzea” izeneko obren kontratazio-prozedura hasi zen, honako oinarritzko ezaugarriekin:

1. **Erakunde adjudikatzailea.**
 - a) Erakundea: Leioako Udala.
 - b) Espedientea tramitatu duen bulegoa: Udalaren Bulego Teknikoa.
 - c) Espediente-zenbakia: 2010-06-08ko 228. ebazpena.
2. **Kontratuaren xedea.**
 - Helburuaren deskribapena: Lamiako geltokiaren aurreko plazaren ingurua birgaitzea.
3. **Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta modua.**
 - a) Tramitazioa: Arrunta.
 - b) Prozedura: Irekia.
4. **Lizitazio-oinarriaren aurrekontua:**
 - 342.266,55 euro (BEZa barne), LKS Ingenieria S. Coop. enpresak horretarako idatzitako proiektu teknikoaren arabera. Enpresa hori da, hain zuzen ere, obren zuzendaritzaren arduraduna.
5. **Behin-behineko bermea:** Ez da eskatu.
6. **Eskatutako sailkapena:**
 - G taldea: Bideak eta pistak.
 - 6. azpitaldea: Kualifikazio berezirik gabeko bide-obrak.
 - e) kategoria

7. Lehiaketaren adjudikazio-irizpideak:

I.1) APLIKAZIO AUTOMATIKOAREN EMAITZA EZ DIREN BAREMAZIO-IRIZPIDEAK, BALIO-JUDIZIOEN ARABERA.

Eskaintza teknikoak, automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak, guztira, 49 puntuz haztatuko dira, 100 punturen gainean, honela banatuta:

A.- Memoria teknikoa (gehienez, 39 puntu).

Obra-azterketaren eta jarduketa-eremuaren maila erakusten duen Memoria Teknikoa; bertan, zailtasunik nabarmenenak eta horiek gainditzeko bitartekoak adieraziko dira.

Puntu honetan, proiektua osatzen duten lanen ezaugarriak nabarientzat azalduko dira, bai eta jarduketa-eremuaren ezaugarriak, lanak egiteak eragin ditzakeen kalteak, eta abar ere.

Atal honi dagokion puntuazioa honela banatuko da:

A.1.- Obraren azterlana, jarduketa-eremuaren eta proiektuaren ezagutza (gehienez, 15 puntu).

Eskaintzaileak jarduketa-eremuaren eta proiektuaren ezagutza azaldu eta erakutsiko duen memoria tekniko konstruktiboa baloratuko da. Azken horren azterketa-maila baloratuko da. Eskaintzaileak atal honetan obrak egiteko, eta abarrentzako beharrezko beste neurri sartuko ditu.

A.2.- Lanen plangintza (gehienez, 15 puntu).

Eskaintzaileek proposatutako lanen plangintza, gehienez ere, 15 puntuz baloratuko da, baldin eta behar bezala beteta eta justifikatuta badago; hori guztia, eskaini den betearazpen-epea, obren etekin, unitate kritikoan azterketa, eta abar kontuan hartuta, bai eta obretarako dituen bitartekoak, obretarako duen giza taldea, obraren fase bakoitzaren epe partzialetan gerta litezkeen kalteen kontrola eta balioespena, eta abar kontuan hartuta ere.

A.3.- Obrak egin bitartean eraginak murrizteko neurriak (gehienez, 9 puntu).

Eskaintzaileak obren fasean auzokideei eragindako kalteak murrizteko neurriak hartzea baloratuko da. Oinezkoak espaloietatik eta garajeetako sarbideetako ibietan dauden ibilgailuen artean zirkulatzeko berme-neurriak sartzea baloratuko da.

B.-Kontratuari eskaintako hobekuntzak (gehienez, 5 puntu).

Eskaintzaileak proiektu honi egindako hobekuntzak baloratuko dira.

C.- Kalitatea eta ingurumena ziurtatzeko sistemak (gehienez, 5 puntu).

I.2) AUTOMATIKOKI APLIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK.

Automatikoki ebaluatzen diren irizpideak lizitazioaren baldintza-agirietan haztatuko lirateke, guztira 51 puntuz, 100 punturen gainean, honela banatuta:

Proposamen ekonomikoa (gehienez, 51 puntu).

Eskaintzak honela ebaluatuko dira:

- 0 puntuz baloratuko dira gutxi gorabehera % 20ko diferentziala duten eskaintzak, honako kolektibo honen batez besteko aritmetikari dagokionez: aurkeztutako guztiak, handiena eta txikiena izan ezik.
- Gainerakoetatik, 51 puntu lortuko ditu zenbateko txikiena duen aurrekontuak, eta 0 puntu, zenbatekorik handiena duen aurrekontuak.
- Gainerako eskaintzak baloratzeko, honako algoritmoa aplikatuko da:

$$\text{Puntuazioa} = (\text{Pm} - \text{Po}) \times 51 / (\text{Pm} - \text{Pi})$$

Azalpena:

Pm : Zenbateko handiena duen aurrekontua.

Pi: Zenbateko txikiena duen aurrekontua.

Po: Baloratu beharreko aurrekontua.

8. Agiriak eta informazioa eskuratzeko:

- a) Cianoplan enpresa: Areeta-Getxoko Villa de Plencia kaleko 6. zenbakia. Tf. zk.: 94-464.90.87.
- b) Agiriak eta informazioa eskuratzeko azken eguna: Eskaintzak aurkezteko azken eguna.

9.- Eskaintzak aurkeztea:

- a) Aurkezteko azken eguna: hogeita sei (26) egun natural, iragarki hau BAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, premiazko prozedura dela adierazi baita.
- b) Aurkeztu beharreko agiriak: baldintza-agirian azaldutakoaren arabera.
- c) Aurkezteko lekua: Leioako Udalaren Ofizialtza Saila, udaletxean (Elexalde auzoa 1, 48.940-Leioa).

10. Eskaintzak irekitzea: Baldintza-agirian azaldutakoaren arabera.

11. Iragarkien gastuak: 500,00 euro.

Leioan, 2010eko ekainaren 15ean

BEHIN-BEHINEKO ALKATEA,

Sin.- M^a Carmen Urbieta González